Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3980

AGINDUA, 2009ko ekainaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Azkoitiko (Gipuzkoa) «Bizkargi» musika-eskola pribatuari musika espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Azkoitiko (Gipuzkoa) «Bizkargi» musika eskola pribatuak musika-espezialitateak gehitzeko egin duen eskabidea aztertu da.

Euskal Autonomia Erkidegoan arautu gabeko musika-irakaskuntza espezifikoa ematen duten ikastegien —musika-eskolak— sorrera eta jarduna arautzen duen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren II. kapituluan ezartzen da irakasleei musika-eskoletan irakatsi ahal izateko eskatzen zaien titulazioa (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA).

Indarrean dauden legeak ikusi ondoren eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan harturik, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Baimena ematen zaio Azkoitiko (Gipuzkoa) «Bizkargi» musika-eskola pribatuari 2008-2009 ikasturtetik aurrera dantza espezialitatea emateko. Kode zenbakia: 20007308; helbidea: Xabier Munibe Zuhaiztia, z/g, Azkoitia (Gipuzkoa); titularra: «Bizkargi» Musika Eskola Pribatua.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira: 1., 2., 3. eta 4. mailak.

Adarra:

– Kantua: korua.

– Instrumentu sinfonikoak: txirula, klarinetea, tronpa, bibolina, biola, biolontzeloa, perkusioa, saxofoia eta tronpeta.

– Instrumentu polifonikoak: pianoa, akordeoia eta gitarra.

– Bertakoak: txistua, trikitixa, txalaparta, alboka, dultzaina, dantza eta panderoa.

– Zenbait joera: pianoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Eus-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3980

ORDEN de 8 de junio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la ampliación de especialidades a la Escuela de Música Privada «Bizkargi» de Azkoitia (Gipuzkoa).

Examinada la solicitud presentada por la Escuela de Música Privada «Bizkargi» de Azkoitia (Gipuzkoa), de autorización para la ampliación de especialidades.

Considerando que el Decreto 289/1992, de 27 de octubre (BOPV de 4 de enero de 1993), por el que se rigen la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su Capítulo II, establece la titulación requerida al profesorado para ejercer la docencia en Escuelas de Música.

Vista la legislación vigente y considerando que se cumplen todos los requisitos exigidos reglamentariamente,

RESUELVO:

Artículo único.– Se autoriza a la Escuela de Música Privada «Bizkargi» Musika Eskola Pribatua, n.º de código: 20007308, sita en Xabier Munibe Zuhaiztia, z/g, del municipio de Azkoitia (Gipuzkoa), y cuyo titular es la Asociación Bizkargi Musika Eskola, a impartir a partir del curso escolar 2008-2009 la especialidad de danza.

Se impartirán en este centro las siguientes enseñanzas: niveles 1, 2, 3 y 4.

Rama:

– Canto: Coral.

– Instrumental sinfónica: Flauta, Clarinete, Trompa, Violín, Viola, Violoncello, Percusión, Saxofón y Trompeta.

– Instrumental polifónica: Piano, Acordeón y Guitarra.

– Autóctona: Txistu, Trikitixa, Dultzaina, Alboka, Pandero, Txalaparta y Danza.

– Tendencias Diversas: Piano.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un

kal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2009.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.